

BERTSOLARITZA. Kronikak, bertsoak eta argazkiak ez ezik, kritikak eta iritziak ere baditu

Kalean da iazko Bertsolari Txapelketa Nagusia laburbiltzen duen liburua

Bertso hautatuak biltzen dituen bi disko ere jasoko ditu, liburuarekin batera, erosleak

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Kalean jarri dute dagoeneko Bertsozale Elkartek eta Bertsolari Liburuak argitaletxeak *Bertsolari Txapelketa 2001* liburua, bi diskorekin hornitua. Iaz jokaturako Txapelketa Nagusiko saioetako kronikak eta bertso hautatuak, datuak eta argazkiak, kritikak, iritziak eta doinuak biltzen ditu, besteak beste, liburuak; bi diskoek, berriz, bertso hautatu batzuen grabazioak entzuteko aukera eskaintzen dute.

Jende askoren lanaren ondorio da liburua, eta Jexux Muruak koordinatu du parte hartu duten guztien lana: Antton Kazabonek eta Josu Telleriak egin dute liburuko zein diskoetako bertsoen hautaketa, eta liburuan jasotako bertsoen transkripzioak Martin Aramendi arduratu da; kronikak Jexux Muruak eta Joseba Santxok idatzi dituzte; kritikak Joxerra Garziak, Karlos Aizpuruak eta Rufino Iraolak; iritziak Laxaro Azkunek eta Manuel Olanok elkarlanean, Andoni Egañak, Jon Sarasuak eta Iñaki Muruak; doinuen azterketa Juanito Dorronsorok egin du; argazkiak Juanxo Egaña eta Uxue Monterorenak dira; azaleko irudia Gorka Aizpuruarena; eta hitzaurre bat ere badu liburuak, Inazio Mujika Iraolak idatzia.

Kritikari eskainitako atala lantzeko, «oso material ona» aurkitu dute Aizpuruak, Iraolak eta Garziak, lehenak atzoko



IÑAKI URANGA
Mikel Mendizabal eta Igor Elortza Azpeitian jokaturako kanporaketan.

aurkezpenean azaldu zuten. Aizpuruak final-laurdeneko saioak izan ditu kritikarako gai, eta erantzunaren arloa landu du; Iraolak finalerdietako saioak, eta gaiari erreparatu dio; eta Garziak alderdi askotatik begiratu dio finaleko saioari. Lana «borondaterik onenez» egin dutela adierazi zuen Aizpuruak, eta emaitza bertso eskoletarako baliagarri izatea espero duela, «ez dogma bezala, abiapuntu gisa baino».

Andoni Egaña txapeldunak ere parte hartu zuen atzoko aur-

kezpenean. Txapelketaren antolatzaileen lana laudatu zuen lehenik Egañak: «Ohea hain ondo prestatuta, guri etzatea besterik ez zitzaigun geratzen».

«Transmisiorako baliagarria»

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001 liburua «transmisioaren ikuspegitik begiratu, balio handikoa» izan daitekeela uste du Egañak. Balio hori ilustratzeko, 1981eko apirilaz geroztik Zarauzko Udal Liburutegitik osatutako hiru liburu dituela etxean ekarri zuen gogora txapeldu-

nak. Bertsoaletzen hasia, garai hartan zaletasun hori lantzeko «euskarri gutxi eskuratzeko aukera» zuen Egañak, eta, liburu haiek aurretik beste irakurlerik izan ez zutela ikusirik, beretzat hartzea erabaki zuen. «Haiekin egin nintzen, neurri batean, bertsolari», ekarri zuen gogora.

Bertsolari Liburuak argitaletxearen izenean mintzatuz, gisa honetako lanak argitaratzea atsegin handia dela esan zuen Xanti Jakak, eta Bertsozale Elkartearekin elkarlanean jarraitzeko gogotsu agertu zen.

LABURAREN

AZPIEGITURAK

Zerbitzu berriak aurkeztu ditu Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneako webguneak

Zerbitzu berriak jarri ditu abian Donostiako Koldo Mitxelena kulturunearen webguneak (www.gipuzkoa.net/kultura helbidean). Kulturaren inguruko galderak eta kontsultak egiteko aukera eskaintzen duen chat zerbitzua da horietako bat; liburutegia bezala, 08:30etik 20:30era izango da zabalik aukera hori, astegunetan. Katalogoaren kontsultarako IPAC sistema eskaintzen du, horretaz gain, webgune berriak, eta, oro har, «orekatuagoa eta sartzeko zein kontsultatzeko errazagoa» da egun, Luis Bandres Gipuzkoako Euskara, Gazteria eta Kirol diputatuak atzo egindako aurkezpenean esan zenez.

ARTEA

Pinturari zuzenduriko galeria berria inauguratuko da gaur Gasteizen, Jose Antonio Fiestrasen obrekina

Okendo Galeria irekiko da gaur Gasteizko Manuel Iradier kalean pinturako artelanak erakusteko asmoz. Bertan Jose Antonio Fiestras gasteiztarraren margolanak egongo dira ikusgai, inaugurazio moduan, urriaren 11 bitartean. Perfekzioa iritsi nahi duten artelanak erakutsiko dira, sentibiltate handia duen artistarekin hasiz.

MUSIKA

Cuarteto Arccus taldeak Vinarosko jaialdian lehen saria jaso du

Cuarteto Arccus soka laukoteak Castelloko Vinaros herrian ospatutako 4. Ganbera

Musika Lehiaketako lehen saria irabazi du, 1.500 eskuratuz eta baita Joventus Musicals antolatzaileen eskutik kontzertuak eskaintzeko aukera ere. Larraitx Oiartzabal, Katarina Todorovic, Eneko Nuño eta Junghyun Byun dira musikariak.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Euskal Zinema eta Bideo Bilerak bertan parte hartzeko epea ireki du

Euskal Zinema eta Bideo Bilerako antolatzaileek ireki dute dagoeneko bertan parte hartzeko epea, eta urriaren 13an itxiko dute. Izena eman ahal izateko, bideoak euskaraz eginak izan behar dira, eta iraupena 30 minututik beherakoa. Amateurrak nahiz profesionalak daude parte hartzera gonbidatuak. Aurtengo bilera azaroaren 21etik 23ra bitartean ospatuko da.

euskararen
donostia
patronatua



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

euskara ikasteko dirulaguntzak

- **Donostiarrentzat euskara ikasteko dirulaguntzak**
Eskabideak aurkezteko epea:
Irailaren 23tik urriaren 14ra, 9.00etatik 13.00etara
Euskararen Udal Patronatuan

donostiako 50. zinemaldia

- **Chihiroren bidaia**
(Berlingo Urrezko Hartzaren estatu mailako estreinaldia euskaraz bikoiztua)
Hayao Miyazaki (Japonia)
Irailaren 27an, 19.00etan Belodromoan
- Zabaltegi** (euskarazko azpittuluak)
- **Bloody Sunday**
Paul Greengrass (UK-Irlanda)
Irailaren 28an, 19.30etan Antzoki Zaharrean
- **Mies Vailla Menneisyttä**
Aki Kaurismäki (Finlandia)
Irailaren 28an, 22.30etan Antzoki Zaharrean
- 50eko 50ak** (euskarazko azpittuluak)
- **Touch of Evil**
Deabruzko ukitua
Orson Wells
Irailaren 26an, 19.30etan, Astoria 6an

Michael Powell
(euskarazko azpittuluak)

- **The red shoes**
Zapatila gorriak
Irailaren 26an, 22.30etan Astoria 6an
Irailaren 27an, 22.45etan Principe 5an

Pepping Tom

- **Izuaren argazkilaria**
Irailaren 28an, 17.00etan Principe 6an

Francis Ford Coppola
(euskarazko azpittuluak)

- **The conversation**
Elkarriketa
Irailaren 27an, 19.30etan Astoria 6an

- **The cotton club**
Irailaren 27an, 16.30etan Principe 5an